

Behin-behineko datuen arabera 2010ean I+Gn egindako gastua %5,1 gehitu zen Euskal AEn

I+Gn dedikazio osoko baliokidetzan lan egin zuen pertsona kopurua %5,2 gehitu zen

EUSTATEk dituen **behin-behineko datuen** arabera, 2010. urtean %5,1 gehitu zen Euskal AEn ikerketa zientifikoari eta garapen teknologikoari lotutako jardueretan (I+G) egindako gastua.

Eta, Euskal AEn, I+Gn dedikazio osoko baliokidetzan lan egin zuen pertsona kopurua %5,2 gehitu zen.

I+Gko gastuan eta langile kopuruan izan ziren gehikuntzak egikaritze-sektoreen portaera onaren ondorioz eman ziren.

Enpresen sektorea nabarmendu behar da, behin-behineko datuen arabera sektore honek %6,3 gehitu zuelako barne-gastua eta %6,9 langile kopurua I+Gri lotutako jardueri dagokienez.

Goi-mailako irakaskuntzaren sektorean, aldiz, %2,2 eta %3,3 gehitu ziren hurrenez hurren I+Gko gastua eta langile kopurua.

Azkenik, administrazio publikoaren sektorean %1,2 gehitu zen I+Gn egindako gastua, baina arlo horretako langile kopurua %6,5 gutxitu zen.

Ohar metodologikoa: Eustatek lehenengo aldiz egin du I+Gko gastuak eta langile kopuruak 2010ean izan zuen bilakaerari buruzko **Datuen Aurrerapena**. Horretarako, hain zuzen, aurreko urteko gastu osoaren %82,7 zuten (denek batera) enpresak, unibertsitateak eta erakundeak hartu ditu eta ekainean aurreratu ahal izan ditu urte honetako azaroan emango diren behin betiko emaitzen aurrerapena.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: José Miguel Escalada

Tel.: +34-945-01 75 96 Faxa: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko \(I+G\) jardueren estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko \(I+G\) jardueren estatistikari buruzko datu bankua](#)